En los supuestos a que se refiere el artículo 2.3, se consignará como domicilio del expedidor el del sujeto pasivo destinatario de los bienes o servicios. Asimismo deberá constar el domicilio del proveedor de los bienes o servicios.

Cuando el destinatario de las operaciones sea una persona física que no actúe como empresario o profesional, no será obligatoria la consignación de su domicilio.

f) Descripción de las operaciones, consignándose todos los datos necesarios para la determinación de la base imponible del Impuesto, tal y como ésta se define por los artículos 78 y 79 de la Norma del Impuesto, correspondiente a aquéllas y su importe, in-

(Zerga sartu gabe) banakako prezioak eta banakako prezio horretan sartuta ez dagoen edozein deskontuk edo beherapenek ere.

g) Eragiketei aplikaturiko zerga tasa edo, hala badagokio, zerga tasak.

h) Hala badagokio, jasanaraziko zerga kuota. Zerga kuota hori be-reizita adieraziko da.

i) Dokumentaturiko eragiketak egin diren data edo, hala badagokio, aurreraturiko ordainketa egin den data, baldin eta faktura egiten den egun berekoa ez bada.

2. Fakturen kopietan, aurreko idatz zatiko baldintzekin batera, kopia-kopiatu direla adieraziko da.

3. Faktura batean dokumentaturiko Zergatik salbuetsita badago edo ez badago Zergari lotuta, edo eragiketa horri dagokion Zergaren subjektu pasiboa haren hartzailea bada, maiatzaren 17ko 77/388/EE Arteztarauko (Kontseiluaren Seigarren Arteztaraua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arloan) xedapenen erreferentzia egin beharko da, edo Zergaren Arautegiko dagozkien aginduen erreferentzia; edo adierazi beharko da eragiketa salbuetsita dagoela edo ez dagoela lotuta, edo Zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea dela. Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, faktura berean eragiketa bat baino gehiago dokumentaturik dagoenean eta adierazi diren egoerak haietako batzuei bakarrik dagozkienean.

4. Honako kasu hauetan, faktura berean dokumentaturiko eragiketa bakoitzari dagokion zerga oinarriaren zatia bereizita adierazi beharko da:

a) Faktura berean dokumentaturik daudenean Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden edo Zergari lotuta ez dauden eragiketak eta baldintza horiek betetzen ez dituzten beste eragiketa batzuk.

b) Faktura berean sartuta daudenean eragiketei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasibotzat hartzailea duten eragiketak eta baldintza hori betetzen ez duten beste eragiketa batzuk.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa ezberdinak dituzten eragiketak batera sartuta daudenean.

5. Zergaren Arautegiko 25. artikulua aipatutako garraibide berrien entregatzeetan, fakturan adieraziko dira, aurreko 1. idatz zatian xedaturiko datu eta baldintzez gain, garraibidearen ezaugarriak, zerbitzuan lehenik jarri zen data, eta entregatu arte eginiko distantziak, edo nabigazio orduak edo hegaldi orduak.

6. Zergaren Arautegiko 79.2. artikuluan jasotako Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan eginiko eskuratzeen ondoko entregatze horiek egiten dituzten enpresaburu edo profesionalek berriaz idatzi beharko dute fakturretan eragiketa triangularrak edo kate eragiketa dela, Zergaren Arautegiko 26. hiru artikuluetan jasota daudenak. Halaber, idatzi beharko dute Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eskuratzeen eta ondoko entregatzeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia, bai eta ondoko entregatzearen hartzaileak Zerga horren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakia ere.

7. Zerga Administrazioako organo aginpidedunak jarduera sektore jakin bateko merkataritzako edo administrazioako praktikek edo fakturak egiteko baldintza teknikoek artikuluko honetako 1. idatz zatian jasotako aipamenak adieraztea zailtzen dutela ikusten badu, baimendu ahal izango du, interesdunak aurretik eskaturik, fakturan idatz zati horrek jasotako aipamen guztiak ez agertzea, beti ere baldin eta dokumentaturiko eragiketak Zergaren aplikazioko lurraldean egiten direla ulertzen diren ondasun entregatze edo zerbitzu emateak badira, Zergaren Arautegiko 25. artikulua araberak salbuetsita daudenak izan ezik.

Faktura horiek, dena den, honako aipamen hauek izango dituzte:

- a) Egin zen data.
- b) Faktura egitera behartutakoaren nortasuna.
- c) Entregaturiko ondasunen edo emandako zerbitzuen motak.
- d) Zerga kuota edo hura kalkulatzeko ahalbidetzen duten datuak.

cluyendo el precio unitario sin Impuesto de dichas operaciones, así como cualquier descuento o rebaja que no esté incluido en dicho precio unitario.

g) El tipo impositivo o tipos impositivos, en su caso, aplicados a las operaciones.

h) La cuota tributaria que, en su caso, se repercuta, que deberá consignarse por separado.

i) La fecha en que se hayan efectuado las operaciones que se documentan o en la que, en su caso, se haya recibido el pago anticipado, siempre que se trate de una fecha distinta a la de expedición de la factura.

2. En las copias de las facturas, junto a los requisitos del apartado anterior, se indicará su condición de copias.

3. En el supuesto de que la operación que se documenta en una factura esté exenta o no sujeta al Impuesto o de que el sujeto pasivo del Impuesto correspondiente a aquella sea su destinatario, se deberá incluir en ella una referencia a las disposiciones correspondientes de la Directiva 77/388/CEE de 17 de mayo, Sexta Directiva del Consejo en materia del Impuesto sobre el Valor Añadido, o a los preceptos correspondientes de la Norma del Impuesto o indicación de que la operación está exenta o no sujeta o de que el sujeto pasivo del Impuesto es el destinatario de la operación. Lo dispuesto en este apartado se aplicará asimismo cuando se documenten varias operaciones en una única factura y las circunstancias que se han señalado se refieran únicamente a parte de ellas.

4. Deberá especificarse por separado la parte de base imponible correspondiente a cada una de las operaciones que se documenten en una misma factura en los siguientes casos:

a) Cuando se documenten operaciones que estén exentas o no sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido y otras en las que no se den dichas circunstancias.

b) Cuando se incluyan operaciones en las que el sujeto pasivo del Impuesto sobre el Valor Añadido correspondiente a aquellas sea su destinatario y otras en las que no se dé esta circunstancia.

c) Cuando se comprendan operaciones sujetas a diferentes tipos del Impuesto sobre el Valor Añadido.

5. En las entregas de medios de transporte nuevos a que se refiere el artículo 25 de la Norma del Impuesto se deberá hacer constar en la factura, además de los datos y requisitos establecidos en el apartado 1 anterior, sus características, la fecha de su primera puesta en servicio y las distancias recorridas u horas de navegación o vuelo realizadas hasta su entrega.

6. Los empresarios o profesionales que realicen las entregas subsiguientes a las adquisiciones intracomunitarias a que se refiere el artículo 79.2 del Reglamento del Impuesto deberán indicar expresamente en las facturas correspondientes a dichas entregas que se trata de una operación triangular o en cadena de las contempladas en el artículo 26. Tres de la Norma del Impuesto y consignar en ellas el número de identificación a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido con el que realizan las referidas adquisiciones intracomunitarias y entregas subsiguientes, así como el número de identificación a efectos del mencionado Impuesto suministrado por el destinatario de la entrega subsiguiente.

7. Cuando el órgano competente de la Administración tributaria aprecie que las prácticas comerciales o administrativas del sector de actividad de que se trate, o bien las condiciones técnicas de expedición de las facturas, dificulten la consignación de las menciones a que se refiere el apartado 1 de este artículo, podrá autorizar, previa solicitud del interesado, que en la factura no consten todas las menciones contenidas en el citado apartado, siempre y cuando las operaciones que se documenten sean entregas de bienes o prestaciones de servicios que se entiendan realizadas en el territorio de aplicación del Impuesto, con excepción de las que se encuentren exentas conforme al artículo 25 de la Norma del Impuesto.

Dichas facturas deberán contener, en todo caso, las siguientes menciones:

- a) La fecha de su expedición.
- b) La identidad del obligado a su expedición.
- c) La identificación del tipo de bienes entregados o de servicios prestados.
- d) La cuota tributaria o los datos que permitan calcularla.

8. Artikulu honetako 1. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, enpresaburu edo profesional gisa ez dihardutenentzat egindako eragiketak direnean, ez da nahitaezkoa izango fakturan hartzailearen identifikazio datuak idaztea (Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe) 100 euro baino gutxiagoko ordaina duten eragiketen kasuan. Enpresa eta lanbide jardueretan eragozpenak saihesteko, enpresa edo lanbide sektore jakinetarako edo enpresa jakinetarako, muga horretan salbuespenak egon ahal izango dira, Zerga Administraziooko organo aginpidedunak baimentzen duen kasuetan.

9. Zergaren Arautegiko 97. bat artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, artikulu honetako 1.-7. idatz zatietan jasotako datu guztiak dituen eta baldintza guztiak betetzen dituen bakarrik joko da fakturatzat.

7. artikulua.- Ordezko agirien edukia.

Tiket guztiek eta haren kopiek jarraian zehazten diren datuak edo baldintzak izango dituzte, beste ondorio batzuetarako nahitaezkoak izan daitezkeenez gain, eta bestelako aipamenak gehitzeko aukeraz gain.

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Serie bakoitzaren barruko tiketetaren zenbakiak korrelatiboak izango dira.

Serie bereizien bidezko tiketak egin ahal izango dira, hala justifikatzen duten arrazoiak daudenean, eta, besteak beste, honako kasu hauetan:

1. Tiketak egitera behartutakoak bere eragiketak egiteko establizimendu bat baino gehiago duenean.

2. Tiketak egitera behartutakoak izaera ezberdinetako eragiketak egiten dituztenean.

3. Bosgarren artikuluan jasotako eragiketen hartzaileek edo hirugarren batzuek egindako tiketak. Hartzaile edo hirugarren pertsona bakoitzeko serie berezi batek egon beharko du.

4. Tiket zuzentzaileak.

Enpresaburuak edo profesionalak urte natural berean egindako eragiketak dokumentatzeko tiketak edo fakturak egiten dituztenean, tiketak eta fakturak serie bereizietan egitea nahitaezkoa izango da.

b) Tiketa egitera behartutakoaren identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta haren izen-abizenak eta sozietate izen osoa ere.

c) Aplikaturiko zerga tasa edo "BEZ barne" esapidea.

d) Ordaina, guztira

8. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak egiteko erak.

Fakturak edo ordezkoko agiriak edozein eratan, paperetan edo euskarri elektronikoan, egin ahal izango dira, baldin eta egin den data, egindako fakturen erregistro liburuan (Zergaren Arautegiko 63. artikuluan araututakoa) idatzi dela eta modu egokian gorde dela egiaztatzea ahalbidetzen badu.

9. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak egiteko epea.

1. Fakturak edo ordezkoko agiriak eragiketa egiten den momentuan egin beharko dira.

Hala ere, eragiketaren hartzailea lan hori betetzen duen enpresaburu edo profesional bat denean, hilabeteko epean egin beharko dira, lehen aipaturiko momentutik hasita.

Dena dela, fakturak edo ordezkoko agiriak egin beharko dira eragiketaren diren Zergaren likidazioaldiaren ondoko hilabetearren 16. eguna baino lehen.

2. Arautegi honen ondorioetarako, eragiketak haiei dagokien Zergaren sortzapena sortzen den egunean egin direla ulertuko da.

10. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak adierazteko eta egiteko erabili ahal izango diren dirua eta hizkuntza.

1. Faktoretan edo ordezkoko agirietan agertzen diren zenbatekoak edozein dirutan adierazi ahal izango dira, baina jasanarazten den, hala badagokio, Zergaren zenbatekoa eurotan adierazi beharko da; horretarako, Zergaren Arautegiko 79.hamaika artikulua ezarritako trukaneurria erabiliko da.

2. Fakturak edo ordezkoko agiriak edozein hizkuntzatan egin ahal izango dira. Hala ere, Zerga Administrazioak, enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera egiaztatzeko be-

8. No obstante lo dispuesto en el apartado 1 de este artículo, tratándose de operaciones realizadas para quienes no tengan la condición de empresarios o profesionales actuando como tales, no será obligatoria la consignación en la factura de los datos de identificación del destinatario en cuanto a las operaciones cuya contraprestación sea inferior a 100 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido no incluido. Este límite se podrá excepcionar en los casos que autorice el órgano competente de la Administración tributaria en relación con sectores empresariales o profesionales o empresas determinadas, con el fin de evitar perturbaciones en el desarrollo de las actividades empresariales o profesionales.

9. A efectos de lo dispuesto en el artículo 97.Uno de la Norma del Impuesto, únicamente tendrá la consideración de factura aquella que contenga todos los datos y reúna los requisitos a que se refieren los apartados 1 a 7 de este artículo.

Artículo 7.- Contenido de los documentos sustitutivos.

Sin perjuicio de los datos o requisitos que puedan resultar obligatorios a otros efectos y de la posibilidad de incluir cualesquiera otras menciones, todos los tiques y sus copias contendrán los siguientes datos o requisitos:

a) Número y, en su caso, serie. La numeración de los tiques dentro de cada serie será correlativa.

Se podrán expedir tiques mediante series separadas cuando existan razones que lo justifiquen y, entre otros, en los siguientes casos:

1º Cuando el obligado a su expedición cuente con varios establecimientos desde los que efectúe sus operaciones.

2º Cuando el obligado a su expedición realice operaciones de distinta naturaleza.

3º Los expedidos por los destinatarios de las operaciones o por terceros a que se refiere el artículo 5, para cada uno de los cuales deberá existir una serie distinta.

4º Los rectificativos.

Cuando el empresario o profesional expida tiques y facturas para la documentación de las operaciones efectuadas en un mismo año natural, será obligatoria la expedición mediante series separadas de unos y otras.

b) Número de identificación fiscal, así como el nombre y apellidos, razón o denominación social completa del obligado a su expedición.

c) Tipo impositivo aplicado o la expresión "IVA incluido."

d) Contraprestación total.

Artículo 8.- Medios de expedición de las facturas o documentos sustitutivos.

Las facturas o documentos sustitutivos podrán expedirse por cualquier medio, en papel o en soporte electrónico, que permita la constatación de su fecha de expedición, su consignación en el libro registro de facturas expedidas, regulado en el artículo 63 del Reglamento del Impuesto, y su adecuada conservación.

Artículo 9.- Plazo para la expedición de las facturas o documentos sustitutivos.

1. Las facturas o documentos sustitutivos deberán ser expedidos en el momento de realizarse la operación.

No obstante, cuando el destinatario de la operación sea un empresario o profesional que actúe como tal, deberán expedirse dentro del plazo de un mes contado a partir del citado momento.

En todo caso, las facturas o documentos sustitutivos deberán ser expedidos antes del día 16 del mes siguiente al período de liquidación del Impuesto en el curso del cual se hayan realizado las operaciones.

2. A los efectos de este Reglamento, las operaciones se entenderán realizadas en la fecha en que se haya producido el devengo del Impuesto correspondiente a las citadas operaciones.

Artículo 10.- Moneda y lengua en que se podrán expresar y expedir las facturas o documentos sustitutivos.

1. Los importes que figuran en las facturas o documentos sustitutivos podrán expresarse en cualquier moneda, a condición de que el importe del Impuesto que, en su caso, se repercute se exprese en euros, a cuyo efecto utilizará el tipo de cambio a que se refiere el artículo 79. Once de la Norma del Impuesto.

2. Las facturas o documentos sustitutivos podrán expedirse en cualquier lengua. No obstante, la Administración tributaria, cuando lo considere necesario a los efectos de cualquier actuación dirigida a la

harrezkotzat jotzen duenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazioko lurraldean egindako eragiketei dagozkien fakturak Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala den hizkuntza batera itzultzeko eska dezake, ofiziala ez den hizkuntza batean eginda daudenean, bai eta lurralde horretan ezarritako enpresaburu, profesional edo subjektu pasiboek jasotako fakturak ere.

11. artikulua.- Eragiketak biltzeko fakturak.

Hartzaile berarentzat hainbat egunetan egindako hainbat eragiketa faktura bakar batean sartu ahal izango dira, baldin eta eragiketa horiek hilabete natural berean egin badira.

Faktura horiek, beranduenik, haietan dokumentaturiko eragiketak egin diren hilabete naturalaren azken egunetan egin beharko dira. Hala ere, eragiketa horien hartzailea lan hori betetzen duen enpresaburu edo profesional bat denean, hilabete epean egin beharko dira, lehen aipaturiko egunetik hasita.

Dena dela, faktura horiek egin beharko dira eragiketak egin diren Zergaren likidazioaldiaren ondoko hilabetearen 16. eguna baino lehen.

Aurreko paragrafoetan xedatu dena 2.3. artikuluan aipatutako fakturei ere aplikatu ahal izango zaie, baldin eta hornitzaile berak hilabete natural berean eginiko eragiketak badira.

12. artikulua.- Fakturen edo ordezeko agirien kopiak.

1. Enpresaburu, profesional edo subjektu pasiboek faktura edo ordezeko agiri bakoitzaren original bakarra baizik ezin izango dute egin.

2. Fakturen edo ordezeko agirien kopiak egitea honako kasu haueetan bakarrik izango da onargarria:

a) Ondasun entregatze edo zerbitzu emate batean hartzaile bat baino gehiago dagoenean. Halakoetan, originalean eta kopia bakoitzean hartzaile bakoitzari jasanarazitako zerga oinarriaren eta kuotaren zatia adierazi beharko da.

b) Edozein arrazoiengatik, originala galtzen denean.

3. Aurreko idatz zatian aipatu diren kopiek dagozkien agiri originalek duten eraginkortasun bera izango dute.

4. Kopia bakoitzean "kopia" esapidea jarri beharko da.

13. artikulua.- Faktura edo ordezeko agiri zuzentzaileak.

1. 6. edo 7. artikuluetan xedatu diren baldintzetako bat betetzen ez den kasuetan egin beharko da faktura edo ordezeko agiri zuzentzaile bat.

2. Halaber, faktura zuzentzailea egin beharko da jasanarazitako zerga kuotak era zuzenean zehaztu ez diren kasuetan edo, Zergaren Arautegiko 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga oinarria aldatzea ekartzen duten baldintzak gertatzen direnean.

Hala ere, zerga oinarria aldatzen bada ontziak eta paketatzeak itzuli direlako, eta horiek entregatu ziren eragiketan faktura egin bazen, ez da beharrezko izango faktura zuzentzailea egitea, eta hartzaile bera duen ondoko eragiketa batengatik egindako fakturan egin ahal izango da zuzenketa. Ondoko eragiketaren zenbatekotik, itzultitako ontziak eta paketatzeen zenbatekoa kenduko da, eta eragiketen hartzaileari emaitzaren zenbatekoa bakarrik jasanarazitako zaio, baldin eta bi zenbatekoen arteko aldearen emaitza positiboa bada, eta zerga tasa aplikagarria bera bada.

Zerga oinarria aldatzen bada eragiketen bolumenagatik beharpenak edo hobariak eman direlako, edo Zerga Administrazioako organo aginpidedunak baimendutako beste kasu batzuk gertatu direlako, ez da beharrezko izango faktura zuzentzaileak egitea, eta nahiko izango da zein aldiri dagozkion zehaztea.

3. Faktura edo ordezeko agiri zuzentzaileak egin beharko dira horiek egitera behartutakoak aurreko idatz zatietan ezarritako baldintzak, faktura edo ordezeko agiri horiek egitera behartzen dutenak, gertatu direla egiaztatu bezain laster, baldin eta Zerga sortu zen unetik edo, ha-

comprobación de la situación tributaria del empresario o profesional o sujeto pasivo, podrá exigir una traducción a una lengua oficial en el País Vasco, de las facturas expedidas en una lengua no oficial que correspondan a operaciones efectuadas en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido, así como de las recibidas por los empresarios o profesionales o sujetos pasivos establecidos en dicho territorio.

Artículo 11.- Facturas recapitulativas.

Podrán incluirse en una sola factura distintas operaciones realizadas en distintas fechas para un mismo destinatario, siempre que aquellas se hayan efectuado dentro de un mismo mes natural.

Estas facturas deberán ser expedidas como máximo el último día del mes natural en el que se hayan efectuado las operaciones que se documenten en ellas. No obstante, cuando el destinatario de éstas sea un empresario o profesional que actúe como tal, la expedición deberá realizarse dentro del plazo de un mes contado a partir del citado día.

En todo caso, estas facturas deberán ser expedidas antes del día 16 del mes siguiente al período de liquidación del Impuesto en el curso del cual se hayan realizado las operaciones.

Lo dispuesto en los párrafos anteriores será igualmente aplicable a las facturas a que se refiere el artículo 2.3, siempre que se trate de operaciones efectuadas por un mismo proveedor dentro de un mismo mes natural.

Artículo 12.- Duplicados de las facturas o documentos sustitutos.

1. Los empresarios y profesionales o sujetos pasivos sólo podrán expedir un original de cada factura o documento sustitutivo.

2. La expedición de ejemplares duplicados de los originales de las facturas o documentos sustitutos únicamente será admisible en los siguientes casos:

a) Cuando en una misma entrega de bienes o prestación de servicios concurren varios destinatarios. En este caso, deberá consignarse en el original y en cada uno de los duplicados la porción de base imponible y de cuota repercutida a cada uno de ellos.

b) En los supuestos de pérdida del original por cualquier causa.

3. Los ejemplares duplicados a que se refiere el apartado anterior tendrán la misma eficacia que los correspondientes documentos originales.

4. En cada uno de los ejemplares duplicados deberá hacerse constar la expresión "duplicado".

Artículo 13.- Facturas o documentos sustitutos rectificativos.

1. Deberá expedirse una factura o documento sustitutivo rectificativo en los casos en que la factura o documento sustitutivo original no cumpla alguno de los requisitos que se establecen en los artículos 6 ó 7.

2. Igualmente, será obligatoria la expedición de una factura rectificativa en los casos en que las cuotas impositivas repercutidas se hubiesen determinado incorrectamente o se hubieran producido las circunstancias que, según lo dispuesto en el artículo 80 de la Norma del Impuesto, dan lugar a la modificación de la base imponible.

No obstante, cuando la modificación de la base imponible sea consecuencia de la devolución de envases y embalajes y por la operación en la que se entregaron se hubiese expedido factura, no será necesaria la expedición de una factura rectificativa, sino que se podrá practicar la rectificación en la factura que se expida por una operación posterior que tenga el mismo destinatario, restando el importe de los envases y embalajes devueltos del importe de dicha operación posterior, repercutiendo al destinatario de las operaciones únicamente el importe correspondiente a la diferencia, siempre que el resultado de la diferencia entre ambas magnitudes sea positivo y el tipo impositivo aplicable sea el mismo.

Cuando la modificación de la base imponible tenga su origen en la concesión de descuentos o bonificaciones por volumen de operaciones, así como en los demás casos que se autoricen por el órgano competente de la Administración tributaria, no será necesaria la especificación de las facturas rectificadas, y bastará la simple determinación del período a que se refieran.

3. La expedición de la factura o documento sustitutivo rectificativos deberá efectuarse tan pronto como el obligado a expedirlos tenga constancia de las circunstancias que, conforme a los apartados anteriores, obligan a su expedición, siempre que no hubiesen transcurrido

la badagokio, Zergaren Arautegiko 80. artikuluan jasotako baldintzak gertatu zirenetik lau urte igaro ez badira.

4. Faktura edo ordezeko agiri zuzentzaile berria eginez egingo da zuzenketa. Faktura edo ordezeko agiri zuzenduen identifikazio datuak eta egindako zuzenketa adieraziko dira.

Faktura edo ordezeko agiri zuzentzaileak 6. edo 7. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Faktura zuzentzailea egiten denean, 6. artikuluko 1. idatz zatiko f), g) eta h) letretan aipatu diren datuak zuzenketatik emaitza direnak izango dira, baldin eta datu horiek zuzentzen badira.

Aurreko bi kasuetako edozeinetan, agirian agiri zuzentzailea dela adieraziko da, eta zuzenketa sortzen duen arrazoa deskribatuko da.

5. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz zatietan onartu diren kausetako batengatik eginiko faktura zuzentzaileak bakarrik joko dira faktura zuzentzailetzat.

14. artikulua.- Zergaren erregimen berezietako eragiketarako dokumentatzeko betebeharraren berezitasunak.

1. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen berezian sartuta dauden pertsonen ondasunak edo zerbitzuak erostean, Zergaren Arautegiko 131.2. artikuluko xedatutakoari jarraituz, konpentsazioak itzuli behar dituzten enpresaburu edo profesionalak ordainagiria egin behar dute eragiketa horientzat, eta ordainagiri horretan honako datu edo baldintza hauek adierazi behar dituzte:

a) Seriea eta zenbakia. Serie bakoitzaren barruko ordainagiriaren zenbakiak korrelatiboak izango dira.

b) Ordainagiria egitera behartutakoaren zein nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako edo arrantzako ustiategiaren titularraren izen-abizenak edo sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea.

c) Entregaturiko ondasunen edo emandako zerbitzuen deskribapena, bai eta eragiketarako materialki eta benetan egin diren tokia eta eguna.

d) Ondasun edo zerbitzuen prezioa, Zergaren Arautegiko 130.bost artikuluan xedatutakoaren arabera zehazturik.

e) Aplikatu den konpentsazio ehunekoa.

f) Konpentsazioaren zenbatekoa

g) Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako edo arrantzako ustiategiaren titularraren sinadura.

Enpresaburu edo profesional horiek ordainagiriaren kopia bat ondasunen edo zerbitzuen hornitzaileari, nekazaritzako, basogintzako, abeltzaintzako edo arrantzako ustiategiaren titularrari, eman beharko diote.

Arautegi honetan fakturei dagozkien gainerako xedapenak idatz zati honek jasotzen dituen ordainagiri ere aplikatu ahal zaizkie, hori egoki den heinean.

2. Titulu honetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeaz gain, ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen erregimen berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek honako betebeharrak berezi hauek bete beharko dituzte erregimen berezi horri lotutako eragiketari dagokienez:

a) Enpresaburu edo profesional gisa ez dihardutenenei egindako erosketa bakoitza justifikatzen duen agiri bat egitea. Eskualdatzaileak erosketa agiri hori izenpetuko du, eta 6.1. artikuluko jasotako datu eta baldintzak izango ditu.

b) Subjektu pasibo birsaltzaileak erregimen bereziari lotutako entregatzeengatik egindako fakturretan egoera hori adierazi beharko da. Halaber, erregimen bereziari lotutako ondasun entregatzeengatik egindako fakturretan, Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetarako bidalketen kasuan, 77/388/EE Artzatarauko 26 bis artikuluko onartutako erregimen bereziaren arabera zerga ordaindu dutela adierazi beharko da, eta artikuluko hori espresuki adierazi beharko da.

c) Subjektu pasibo birsaltzaileak erregimen bereziari lotutako entregatzeengatik egindako fakturretan ezin izango da bereizita adierazi jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota, eta kuota hori eragiketaren guztizko prezioaren barruan dagoela ulertu beharko da.

cuatro años a partir del momento en que se devengó el Impuesto o, en su caso, se produjeron las circunstancias a que se refiere el artículo 80 de la Norma del Impuesto.

4. La rectificación se realizará mediante la emisión de una nueva factura o documento sustitutivo en el que se hagan constar los datos identificativos de la factura o documento sustitutivo rectificadas y la rectificación efectuada.

Dicha factura o documento sustitutivo rectificativo deberá cumplir los requisitos que se establecen, respectivamente, por los artículos 6 ó 7.

Quando lo que se expida sea una factura rectificativa, los datos a los que se refiere el artículo 6.1.f), g) y h) serán los que resulten de la rectificación que, en su caso, se haya efectuado de aquéllos.

En cualquiera de los dos casos anteriores, se hará constar en el documento su condición de documento rectificativo y la descripción de la causa que motiva la rectificación.

5. Únicamente tendrán la consideración de facturas rectificativas las que se expidan por alguna de las causas previstas en los apartados 1 y 2 de este artículo.

Artículo 14.- Particularidades de la obligación de documentar las operaciones en los regímenes especiales del Impuesto.

1. Los empresarios o profesionales que, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 131.2º de la Norma del Impuesto, deban efectuar el reintegro de las compensaciones al adquirir los bienes o servicios a personas acogidas al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca deberán expedir un recibo por dichas operaciones, en el que deberán constar los datos o requisitos siguientes:

a) Serie y número. La numeración de los recibos dentro de cada serie será correlativa.

b) Nombre y apellidos, razón o denominación social completa, número de identificación fiscal y domicilio del obligado a su expedición y del titular de la explotación agrícola, ganadera, forestal o pesquera.

c) Descripción de los bienes entregados o de los servicios prestados, así como el lugar y fecha de realización material y efectiva de las operaciones.

d) Precio de los bienes o servicios, determinado con arreglo a lo dispuesto en el artículo 130.Cinco de la Norma del Impuesto.

e) Porcentaje de compensación aplicado.

f) Importe de la compensación.

g) La firma del titular de la explotación agrícola, ganadera, forestal o pesquera.

Estos empresarios o profesionales deberán entregar una copia de este recibo al proveedor de los bienes o servicios, titular de la explotación agrícola, forestal, ganadera o pesquera.

Las demás disposiciones incluidas en este Reglamento relativas a las facturas serán igualmente aplicables, en la medida en que resulte procedente, a los recibos a que se refiere este apartado.

2. Sin perjuicio del cumplimiento del resto de obligaciones establecidas en este Título, los sujetos pasivos que apliquen el régimen especial de los bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección deberán cumplir, respecto de las operaciones afectadas por el referido régimen especial, las siguientes obligaciones específicas:

a) Expedir un documento que justifique cada una de las adquisiciones efectuadas a quienes no tengan la condición de empresarios o profesionales actuando como tales. Dicho documento de compra deberá ser firmado por el transmitente y contendrá los datos y requisitos a que se refiere el artículo 6.1.

b) En las facturas que expidan los sujetos pasivos revendedores por las entregas sometidas al régimen especial deberá hacerse constar esta circunstancia. Asimismo, en las facturas por las entregas de bienes que, acogidas al régimen especial, se destinen a otros Estados miembros de la Comunidad Europea, deberá hacerse constar la circunstancia de que las citadas operaciones han tributado con arreglo al régimen especial previsto por el artículo 26 bis de la Directiva 77/388/CEE, con mención expresa de dicho artículo.

c) En las facturas que expidan los sujetos pasivos revendedores por las entregas sometidas al régimen especial no podrán consignar separadamente la cuota del Impuesto sobre el Valor Añadido repercutida, y ésta deberá entenderse comprendida en el precio total de la operación.

3. Bidaia agentzien erregimen berezia aplikatu daitekeen eragiketetan, subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo jasanarazitako kuota berezita adieraztera, eta Zerga, hala badagokio, eragiketaren prezioaren barruan dagoela ulertu beharko da. Hala ere, eragiketen horien hartzaileak lan hori betetzen duten enpresaburu edo profesionalak direnean, eta eragiketa horiek Zergaren aplikazio lurraldean erabat egindako ondasun entregatzeak edo zerbitzu emateak direnean, fakturan adierazi ahal izango da —interesdunak eskatuta eta "Prezioaren barruan sartutako BEZaren kuota" tituluaren azpian— eragiketaren guztizko prezioa 6rekin biderkatzearen eta, ondoren, 100ekin zatitzearen emaitza.

Dena dela, erregimen berezi hori aplikatu ahal zaien eragiketak dokumentaturik dituzten fakturretan, egoera hori adierazi beharko da, bidaia agentzien erregimen bereziari lotuta edo 77/388/EE Artetzarauko 26. artikuluan onartutako erregimen bereziari lotuta daukela esanez.

4. Baliokidetasun errekaragua jasanaraztera behartzen duten ondasun entregatzeak egiten dituzten enpresaburu edo profesionalak beti ere faktura bereziak egin beharko dituzte entregatze horiek dokumentatzeko. Faktura horietan aplikaturiko errekaragua mota eta haren zenbatekoa adieraziko dira. Baliokidetasun errekaraguko erregimen berezia aplikatzen zaien txikizkako merkatariek 2.3. artikulua jasotako fakturak egiten dituztenean, betebeharrak bera aplikatuko da.

Baliokidetasun errekaraguko erregimen berezian sarturiko txikizkako merkatariek, aldi berean enpresa edo lanbide jarduerako beste sektore batzuetan enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituztenean, faktura berezietan izan beharko dituzte dokumentatuta aipaturiko erregimenari dagozkion salgaien erosketak, batetik, eta gainerako jarduerak, bestetik.

III. KAPITULUA

FAKTURAK EDO ORDEZKO AGIRIAK BIDALTZEA

15. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak bidaltzeko betebeharra.

1. tituluko II. kapituluaren ezarritakoaren arabera egindako fakturen edo ordezkoko agiriaren originalak haietan dokumentaturiko eragiketen hartzaileei (2.3 artikuluan aipatutako eragiketen kasuan izan ezik) bidali beharko dizkiete faktura edo ordezkoko agiri horiek gaitera behartutakoek, edo beste norbaitek haien izenean.

16. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak bidaltzeko epea.

15. artikuluan jasotzen den fakturak edo ordezkoko agiriak bidaltzeko betebeharra agiri horiek ematean bete beharko da, edo, bestela, hartzaileak enpresaburu edo profesionala bada, eta horretan jarduten badu, hilabete izango du agiriaren ematen denetik hasita.

17. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak bidaltzeko erak.

Fakturak edo ordezkoko agiriak edozein erataria bidal daitezke, eta bereziki bitarteko elektronikoen bidez bidali ahal dira; horretarako, azken kasu horretan, fakturen jasotzailearen baimena beharko da eta igortzeko erabilitako bitarteko elektronikoen jatorriaren benetotasuna nahiz edukien osotasuna bermatu beharko dute.

Horretarako, bitarteko elektronikoen bidezko bidalketatzat joko da hartzaileak prozesatze ekipu elektronikoen bidez transmisioak egin izana edo erabilgarri jarri izana. Ekipu elektronikoen baitan sartzen dira telefonoaren, irratia, baliabide optikoen edo beste bitarteko magnetiko baten bidez egindako konpresio numerikoa eta datuen biltegiak.

18. artikulua.- Fakturak edo ordezkoko agiriak bidaltzea.

1. 17. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, bitarteko elektronikoen bidez bidalitako fakturen edo ordezkoko agiriaren edukien benetotasuna nahiz osotasuna honela egiaztatuko da:

a) Sinadura elektronikoa aurreratu baten bidez, Europar Parlamentuaren eta 1999ko abenduko 13ko Kontseiluaren 1999/93/CE Artetzarauko 2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Artetzarau horren bidez, onartutako ziurtagiri batean oinarriturik eta sinadurak sortzeko gailu seguru batekin, sinadura elektronikorako Europako esparrua ezarri da, betiere artetzarau horretako 2. artikuluko 6. eta 10. idatz zatietan jasotakoari jarraiki.

3. En las operaciones a las que resulte aplicable el régimen especial de las agencias de viajes, los sujetos pasivos no estarán obligados a consignar por separado en la factura que expidan la cuota repercutida, y el Impuesto deberá entenderse, en su caso, incluido en el precio de la operación. No obstante, cuando dichas operaciones tengan como destinatarios a otros empresarios o profesionales que actúen como tales y comprendan exclusivamente entregas de bienes o prestaciones de servicios efectuadas totalmente en el ámbito espacial del Impuesto, se podrá hacer constar en factura, a solicitud del interesado y bajo la denominación "cuotas de IVA incluidas en el precio", la cantidad resultante de multiplicar el precio total de la operación por seis y dividir por 100.

En todo caso, en las facturas en las que se documenten operaciones a las que sea de aplicación este régimen especial deberá hacerse constar esta circunstancia indicando que éstas se encuentran sujetas al régimen especial de las agencias de viajes o al régimen especial previsto en el artículo 26 de la Directiva 77/388/CEE.

4. Los empresarios o profesionales que efectúen entregas de bienes en las que deba repercutirse el recargo de equivalencia deberán en todo caso expedir facturas separadas para documentar dichas entregas, consignando en ellas el tipo del recargo que se haya aplicado y su importe. Esta misma obligación será de aplicación cuando los comerciantes minoristas a los que sea de aplicación el régimen especial del recargo de equivalencia expidan las facturas a que se refiere el artículo 2.3.

Los comerciantes minoristas acogidos al régimen especial del recargo de equivalencia que realicen simultáneamente actividades empresariales o profesionales en otros sectores de la actividad empresarial o profesional deberán tener documentadas en facturas diferentes las adquisiciones de mercaderías destinadas respectivamente a las actividades incluidas en dicho régimen y al resto de actividades.

CAPÍTULO III

REMISIÓN DE FACTURAS O DOCUMENTOS SUSTITUTIVOS

Artículo 15.- Obligación de remisión de las facturas o documentos sustitutivos.

Los originales de las facturas o documentos sustitutivos expedidos conforme a lo dispuesto en el Capítulo II del Título I deberán ser remitidos por los obligados a su expedición o en su nombre a los destinatarios de las operaciones que en ellos se documentan, a excepción de aquéllas a las que se refiere el artículo 2.3.

Artículo 16.- Plazo para la remisión de las facturas o documentos sustitutivos.

La obligación de remisión de las facturas o documentos sustitutivos que se establece en el artículo 15 deberá cumplirse en el mismo momento de su expedición o bien, cuando el destinatario sea un empresario o profesional que actúe como tal, en el plazo de un mes a partir de la fecha de su expedición.

Artículo 17.- Formas de remisión de las facturas o documentos sustitutivos.

La obligación de remisión de las facturas o documentos sustitutivos podrá ser cumplida por cualquier medio y, en particular, por medios electrónicos, siempre que en este caso el destinatario haya dado su consentimiento de forma expresa y los medios electrónicos utilizados en la transmisión garanticen la autenticidad del origen y la integridad de su contenido.

A estos efectos, se entenderá por remisión por medios electrónicos la transmisión o puesta a disposición del destinatario por medio de equipos electrónicos de tratamiento, incluida la compresión numérica, y almacenamiento de datos, utilizando el teléfono, la radio, los medios ópticos u otros medios magnéticos.

Artículo 18.- Remisión electrónica de las facturas o documentos sustitutivos.

1. A efectos de lo dispuesto en el artículo 17, la garantía de la autenticidad del origen y de la integridad del contenido de las facturas o documentos sustitutivos que se hayan remitido por medios electrónicos se acreditará por alguna de las siguientes formas:

a) Mediante una firma electrónica avanzada de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.2 de la Directiva 1999/93/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de diciembre de 1999, por la que se establece un marco comunitario para la firma electrónica, basada en un certificado reconocido y creada mediante un dispositivo seguro de creación de firmas, de acuerdo con lo dispuesto en los apartados 6 y 10 del artículo 2 de la mencionada directiva.

b) 1994ko urriko 19ko Batzordearen 1994/820/CE Gomendioko 2. artikuluan definitzen denez, datu truke elektronikoen bidez (EDI). Gomendio hori datuen truke elektronikoen alde juridikoei buruzkoa da, eta jatorriaren benetakotasuna nahiz datuen osotasuna bermatzeko prozedurak erabiltzea aurreikusten denean erabiltzen da.

c) Interesdunek datuak trukatzeko proposatutako elementuen bidez, zerga administrazioan ahalmena duen organoak baimena eman eta gero. Hori egiteko, zerga administrazioako organo aginpidedunari baimena eskatu beharko zaio. Bidalitako fakturretako edo ordezkio agirietako edukiaren benetakotasuna eta osotasuna bermatzen duten elementuak adierazi beharko dira.

2. Hartzaile berari faktura batzuen loteak aldi berean bidaliz gero, fakturek duten xehetasun berdinak behin aipatzearekin nahikoa da, baldin faktura bakoitzean informazio guztia jasotzeko bidea egonez gero.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak emango ditu artikuluko hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak.

IV. KAPITULUA

FAKTURAK, ORDEZKO AGIRIAK ETA BESTELAKO AGIRIAK GORDETZEA

